



ZARAUZKO UDALA

## ZARAUZKO KULTUR MAHAIAREN ERREGELAMENDUA

### 1.- IZAERA ETA KOKAPENA

Zarauzko Kultur Mahaia herritarren kontsulta eta parte-hartzea bermatuko duen mekanismo egonkorra da, eta bere egitekoa herriko kultur egitaraua eta agenda, kultur azpiegiturak, komunikazioa, ondarea, eta kulturarekin lotutako gainerakoak koordinatzea, horien nondik norakoa finkatzea eta proposamenak egitea da.

Zarauzko Kultur Mahaia organo aholku-emailea da, eta Zarauzko Udalari atxikia Kultura Ereduaren Batzorde informatiboaren bitartez.

Zarauzko Kultur Mahaia udalerrian kulturaren aritzen diren norbanako, talde, elkarte eta erakunde publiko eta pribatuetako ordezkarien eta Udalaren arteko harreman-organoa izango da.

### 2.- EGITEKOAK

- ▲ **Herriko kultur ekimenen eta jai egitarauen** antolaketan beharrak antzeman, irizpideak zehaztu eta proposamenak egitea.
- ▲ **Kultur azpiegituren** funtzionamendua eta kudeaketa beharrak antzeman, irizpideak zehaztu eta azterketa horietan oinarritutako proposamenak egitea.
- ▲ Kultura Ereduaren Udal Batzordeari urtean zehar burutu beharreko kultur jarduerak proposatzea, eta programak burutu ahal izateko aurrekontua proposatzea.
- ▲ Aholkua ematea udalerrian kultur dinamizari buruz edo eragina duten ekipamendu, azpiegitura eta antzekoei buruz.
- ▲ Herritarren parte-hartzea eta lankidetzaren sustatzea kultur jardueretan.
- ▲ Eragileetatik zuzentzen den kultur eta jai eskaintza koordinatzea eta ahal den neurrian egokitzea.
- ▲ Herrian kulturarekin lotutako ekimen eta jarduerak berriak sustatzea.

### 3.- PARTAIDEAK

Zarauzko Kultur Mahaia ondorengo partaideak izango ditu:

- ▲ Kultur mahaiburua: Zarauzko Udaleko Kultura zinegotzia.
- ▲ Kultura Ereduaren Batzordeko kideak: Kultura Ereduaren batzordeko udal taldeetako ordezkari bana (hauetako bat mahaiburuaren ordezkari izendatuko da). Beren ordezkariaren indarrez, ordezkari politikoek izaera galduko dute agintaldia bukatzerakoan.
- ▲ Udalerrian kulturaren eragiten duten esparruetan (musika, arte plastikoak, literatura eta antzerkia...) esanguratsuak diren herritarrak (Kultura Ereduaren batzordeak

izendatuta, urtero aldatuko dira) zein elkarteen ordezkariak. Zarauzko Kultur talde bakoitzak bere ordezkariak hautatuko ditu Zarauzko Kultur Mahairako.

- ▲ Zarauzko Udaleko Kultura Departamentuko arduraduna

#### **4.- EGITURA**

Zarauzko Kultur Mahaiak ondorengo organo hauek izango ditu:

- Mahai osoa
- Batzorde iraunkorra
- Lan batzorde edo azpibatzerdeak, sorrera librekoak, ekimen, proiektu edo gai jakin batzuk aztertu eta prestatzeko. Azpibatzerdeek eskumena izango dute beren bileren maiztasuna finkatzeko.

##### **4.1.- Mahai osoa**

Kide guztiek osatuko dute.

**4.2.- Batzorde iraunkorra.** Ondoko lagunek osatuko dute.

Zarauzko Udaleko Kultura zinegotziak eta arduradunak  
Azpibatzerdeen koordinatzaileak  
Ikuspegi orokorra duten pertsonak

Batzorde iraunkorreko idazkaria Kultura Departamentuko arduraduna izango da, jarraitu beharreko plangintza taxutzeko, bileretara deitzeko, gai-zerrendak prestatzeko eta abar.

##### **4.3.- Lan batzorde edo azpibatzerdeak**

Azpibatzerde bakoitzak bi koordinatzaile izango ditu, Batzorde iraunkorreko kide izango direnak.

Hasiera batean hiru lan batzorde aurreikusten dira, baina sortu daitezkeen gaien arabera azpibatzerde berriak eratu daitezke eta baita aurretik eratuak bertan behera utzi ere, beharren arabera.

1. Kultur egitaraua. Koordinazioa eta agenda. Proposamenak eta proiektuak.
2. Jaiak: herriko eta auzoetako jaiak, eta jai zehatzak.
3. Kultur ekimenetarako azpiegiturak.

Azpibatzerde hauetan gaiak interesaturik dauden Zarauzko kultur taldeak (kultur talde bakoitzak bere ordezkariak hautatuko ditu) eta herritar guztiek har dezakete parte, eta partaideen artean bi koordinatzaile izendatuko dira Batzorde Iraunkorreko kide izan daitezkeen. Azpibatzerdeetako idazkaria Kultura Departamentuko arduraduna edo teknikariren bat izango da, jarraitu beharreko plangintza taxutzeko, bileretara deitzeko, gai-zerrendak prestatzeko eta abar.

Lan batzorde edo azpibatzerde bakoitzak gai jakin bati buruz erabakia hartzen duenean, horren berri emango dio Batzorde Iraunkorrari.

## **5.- BILEREN ALDIZKAKOTASUNA**

### **5.1.- Mahai osoa**

Zarauzko Kultur Mahai osoak, gutxienez, urtean ohiko bi batzar egingo ditu, eta horiez gain mahaiburuak ohi kanpo dei ditzakeenak.

Bilera-deiak idazkariak egingo ditu idatziz, Batzorde iraunkorraren eskariz, bilera eguna baino gutxienez zortzi egun lehenago. Idazkian bileraren data, ordua eta tokia jasoko dira eta baita bileraren gai-zerrenda ere.

Ohiz kanpoko deialdiak aipaturako ezaugarri berak izango ditu, eta bilera egin baino gutxienez lau egun aurretik egin beharko da deia.

### **5.2.- Batzorde iraunkorra:**

Bere kideak, gutxienez, hiru hilabetetik behin elkartuko dira.

Bilera-deiak idazkariak egingo ditu idatziz, bilera-eguna baino gutxienez zortzi egun lehenago. Idazkian bileraren data, ordua eta tokia jasoko dira eta baita bileraren gai-zerrenda ere.

### **5.3- Lan batzorde edo azpibatzerdeak**

Lan-batzordeak edo azpibatzerdeak, gutxienez, urtean lau aldiz elkartuko dira.

Bilera-deiak idazkariak egingo ditu idatziz, bilera-eguna baino gutxienez zortzi egun lehenago. Idazkian bileraren data, ordua eta tokia jasoko dira eta baita bileraren gai-zerrenda ere.

## **6.- PROZEDURA ARAUAK**

- ⤴ Bilerara deitzeko, derrigorrezkoa izango da Mahaiko kideen bosten batek hala eskatzea. Kideak kontabilizatzeko, aurreko lehen bilerako kide kopurua hartuko da kontuan.
- ⤴ Mahaiburuak ere bilerak deitu ahal izango ditu, beharrezkotzat jotzen badu.
- ⤴ Mahaiburuak buru jardungo du Mahaiaren Batzorde Iraunkorreko bileretan eta bertako erabakiak betearazteaz arduratuko da.

## **7.- JARDUTEKO MODUA**

### **7.1.- Udalarekin harremanak**

Zarauzko Kultur Mahaiak Kultura Ereduaren informazio-batzordearen bitartez izango du Zarauzko Udalarekin izan beharreko lotura organikoa.

### **7.2.- Zerbitzu teknikoa**

Zarauzko Kultur Mahaiaren funtzionamendu egokia bermatzeko, Zarauzko Udaleko Kultura Departamentuaren laguntza teknikoa izango du. Kultura Departamentuko arduraduna izango da idazkaria.

### **7.3.- Bilera-agiriak**

Zarauzko Kultur Mahaiaren idazkariak bileren agiria egingo du Mahaiaren –edota lantaldearen– hurrengo batzarrean onartzeko, hala badagokio. Agiria onartu ondoren, idazkariak izenpetu egingo du, Mahaiburuaren oniritzia izanik.

Agiriak Udaleko Kultura Departamentuan gordeko dira eta Kultur Mahaiko kideen esku izango dira.

### **7.4.- Mugak eta konpromisoak**

Aztertu beharreko gaien arabera, muga teknikoak, politikoak, edota eskuduntza mugak aipatuko dira. Eta baita ere lortuko diren emaitzekiko Udalak hartu ahal izango dituen konpromisoak.

### **7.5.- Informazioa eta formazioa**

Parte-hartze prozesuaren aberastasunerako, Udalak beharrezko ikusten duen informazioa eta dokumentazio guztia aurretiaz eskainiko die Zarauzko Kultur Mahaiko kideei. Informazio hori gainera ulergarria eta gertukoa izango da, beti ere ahalbideen eta baliabideen arabera.

## **8.- KONFIDENTZIALTASUNA**

Kultura Mahaiaren organoetako kide guztiak behartuta daude isilpean gordetzera, bere kargua dela-eta, ezagutzen duten eztabaida, debate, bozketa edo informazio oro.

**DATUAK**

|                             |                                 |
|-----------------------------|---------------------------------|
| Hasierako onespina          | 2014ko otsailaren 26an          |
| GAOn iragarkia:             | 2014ko martxoaren 7an (45 zk.)  |
| Alegazioak aurkezteko epea: | 2014ko apirilaren 11n           |
| GAOn testua:                | 2014ko maiatzaren 26an (97 zk.) |
| Indarrean:                  | 2014ko ekainaren 13an           |